

HONDARTZAKO TXAPELKETAREN ARGIBIDEAK

PUNTUALITATEA


Zelaira garaiz iritsi behar da. Partidoa baina 15 minutu lehenago jokatzeko moduan egon behar dugu. Zelaia markatuta eta porteria jarrita egon behar dute. Horretarako, Ezinbestekoa da taldea elkartzeko, akta bere lekuan uzteko, hartu beharreko material guztia hartzeko eta joan beharreko zelaira garaiz iristeko taldeak Kontxan denbora nahikoarekin gelditzea.

Horregatik ordutegi aholku hauek uzten ditugu hemen:


- | | |
|---------------------------------------|--------------------|
| • Porteriak jarri eta zelaia markatu | ORDUBETE LEHENAGO |
| • Porteriak soilik jarri behar badira | 45 MINUTU LEHENAGO |
| • Akta entregatu behar bada bakarrik | 30 MINUTU LEHENAGO |

ZELAIK

Zelaiaren hasiera eta bukaera boladizoko zutabeetako azpiko aldean edo paretan markaturik daude zenbaki gorri batzuen bitartez eta horien parean porteriak jarri behar dira.



Zelai guztiak tamaina berdina edukitzeko intentzioarekin, hona hemen RFEFeko araudietan jarritako neurriak azaltzen ditugu. Hau oinarri moduan zabaltzen dugu, hala ere, hondartzaren egoeraren arabera (putzuak, harriak...) neurriak aldatu daitezke.



ZELAIA MARKATZEKO AHOLKUAK

Zelaia gurpilekin markatu behar bada, uraren aldetik hasita eta lehen aipaturiko zenbakiari begira fondoko marrak markatuko ditugu.

Marrak zuzen ateratzeko BETI iritsi nahi dugun lekura begiratu behar dugu, komenigarria da norbait erreferentzi moduan jartzea bukaerako puntuan.


Alboetako marrak korer batean hasita eta joan nahi dugu korrerera begiratuta markatuko ditugu. Jarraian zelai erdiko marra eta areak markatuko ditugu prozedura berdina jarraituz.

Zelaia oso ureztatuta baldin badago, eta ezinezkoa bada bi eskuak gurpilaren heldulekuan jarrita aurrera egin, esku bat gurpilaren enborrean jarritz eta bestea heldulekuan aurrera egiteko erraztasunak ematen ditu, nahiz eta marra zuzen mantentzeko zailtasunak areagotu.

PORTERIAK

Zutoinak, langa eta sarea hartu behar dira eta zelaira eraman, eta goian aipatutako zenbakiaren parean jarri beharko da. Behin leku aproposan gaudela, zutoinak eta langa lurrean utzi eta hondarretan daudelarik elkartuko ditugu, sarea jartzeko lotura guztiak gorantz begira geratzen direla ziurtatuz.

Sarea jartzeko, oso garrantzitsua da, lehenik eta behin denen artean sarea zabaltzea eta horrela ikus dezakegu zein alde da zutoinaren azpialdean geratzen dena eta zein eskuadrari geratzen dela. Horretarako, atzekaldeko zutoinean lotzen den sare zatia handiagoa da, hiru sare-lerro dituelarik, eta hau jarraituz ikus dezakegu alde laburra eskuadrari jarri behar dugula eta alde luzea behean. Sarea alderantziz jarri ezker, porteria ezingo da ondo jarri. Marrazkian ikus daitekeen moduan.



Sarearen ertzak hartu eta porteriaren gainetik jarriko ditugu, zutoinetan dauden loturak lehenbizi lotuz. Ondoren, sare-lerro hirukoitza, atzeko zutoinean dauden loturei elkartuko zaie, eta azkenik langan dauden loturak elkartu. Segurtasun gehiago edukitzeko, posible da sarea zutoinaren azpiko "iltzetik" pasatzea, horrela, hondar azpian geratzen da eta ezingo da mugitu.

Azkenik porteria altxa egingo da, bere lekuan kokatuz.

Haize bolada handiak badaude, bi boltsa handi eskuragarriak izango dira, bertan hondarra jarritz, porteria barruan uzteko hauek erori ez daitezten.

ESKEMATIKOKI:

- Leku egokian gaudela, lurrean, zutoinak eta langa lotu, loturak goraka jarririk.
- Sarea zabaldu eta ikusi zer doa eskudran eta zer lurrean.
- Sarea jarri eta sare-lerro hirukoitza atzeko zutoinean jarri.
- Dena ondo lotuta dagoenean, porteria altxa eta hondarretan ondo sartu.

GURPILAK

Zelaia markatzeko gurpilak etxeko taldeak bakarrik hartuko du. Markatu ondoren, bere "bankiloaren" ondoan jarriko du.

Azkeneko partiduan, etxeko taldea izango da gurpil hau jasotzeko arduraduna, eta partiduan marrak borratu egin badira, bera izango da berriz markatzearen arduraduna.

Hondartzako Futbolaren txapelketan, labur bilduta, hauek dira aplikatuko diren arauak eta berrikuntzak:

- Orain arte bezala 3 denbora izango ditu partida bakoitzak. 12, 12 eta 25. Lehen bi zatitan ez dira aldaketarik egingo lesiorik ez badago eta jokalaria guztiak gutxienez behin parte hartu beharko dute. Azken denboran aldaketak libreak izaten jarraitzen dute.
- 4 zenbakiko baloia erabiliko da.
- Partidoak baloia izan dezan talde bakoitzean gutxienez 6 jokalaria egon beharko dute. Talderen batek 6 jokalaria eikartzea lortuko ez balu, partida galdutzat emango zaio eta daudenekin lagun arteko bat jokatu dute.
- Partida ospatzen den zelaian, udal zelain edo hondartzan, taldeak partidoaren hasiera ordua baina 15 minutu lehenago egon beharko dute. Horrela ez balitz berriz ere berandu iritsitako taldeari partida galdutzat emango zaio eta lagun arteko bat jokatu dute.
- Taldeen janzkeraren koloreak jokoan nahasmendua sor dezakeenean, KANPOKO TALDEAK edo egutegian BIGARREN LEKUAN agertzen dena aldatu beharko du bere janzkera.
- Bi talde baino gehiago sailkapenean puntuz berdinduta badaude araudia hau da:
 1. Beraien arteko lehietan puntu gehiena dituenak.
 2. Beraien arteko lehietan gol gehiago sartu dituenak.
 3. Talde bakoitzak jokatuako partida guztien lortutako golak eta jasotako gol guztien arteko kenketaren ondoren gol gehien duena.
 4. Gol gehiago sartu dituenak
 5. Zozketa

Aktak egiteko orduan izango dira berrikuntza nagusiak:

Talde bakoitzak Foru Aldundiaren aplikaziotik ateratako bere triptikoaren fotokopia bat eraman beharko du partida bakoitzera. Bertan jokalaria bakoitzaren dortsala ere jarri beharko da. Orri hauek Udai zelaian zelaiko arduradunari edo hondartzako kabinetan egongo den arduradunari eman beharko zaizkio partida hasi aurretik.

Partidoak amaitzerakoan epaileek orri hauetan izandako inzidentziak idatziko dituzte emaitzarekin batera. Arinak badira ikastetxeen arteko bileretan erabakiko dira eta larriak balira Hondartzako Futbol Batzordea elkartu eta erabakiko du.